

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2018KO ABENDUA


Euskal AEko industri jarduera %6,0 jaitsi zen 2018ko abenduan

Industriaren balantzean %1,3ko hazkunde metatua izan da 2018an

Eustaten arabera, 2018ko abenduan %6,0 jaitsi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2017ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzendurik, %1,8 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2018ko azaroarekin alderaturik.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko abenduan, 2017koaren aldean, zeinu negatiboko aldakuntzak izan dira sektore industrial handi guztietan. *Ekipoko ondasunek* %9,7ko jaitsiera izan dute, *Bitarteko ondasunak* %6,2 jaitsi dira, *Energia* %2,3 murriztu da eta *Kontsumoko ondasunak*, oro har, %1,3 jaitsi dira, batez ere *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* %5,2ko jaitsieraren ondorioz, *Ez-iraunkorrekoak* askoz modu apalagoan (-%0,2) jaitsi baitira.

2018ko azaroaren aldean, 2018ko abenduko hil arteko aldakuntza ere negatiboa izan da sektore handi guztietan: *Energia* %2,2 jaitsi da, *Ekipoko ondasunak* %2,0 jaitsi dira, *Bitarteko ondasunak* %1,7 egin dute behera eta *Kontsumoko ondasunak*, oro har, %0,9 murriztu dira, zeren *Iraunkorrak* %8,7 jaitsi baitira eta *Ez-iraunkorrak* %2,2 igo diren.

Euskal AEko industrian pisu handieneko sektoreen artean, 2018ko abenduan urte arteko hazkundera bakarrik eduki du *Zura, papera eta arte grafiko*en sektoreak, %5,4ko aldakuntza positiboarekin. Alderantzizko norabidean, murrizketarik handienak

pairatu dituzten sektoreak: *Garraio-materialak*, %30,0ko tasa negatiboarekin; *Kautxu eta plastikoak*, %7,8ko murrizketarekin; eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* sektoreak, %5,0ko jaitsierarekin.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-5,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-3,8
09 - Kautxua eta plastikoak	-7,8
13 - Makineria eta tresneria	-1,7
14 - Garraio-materiala	-30,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-0,7
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	5,4

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, urte artean, abenduan zeinu negatiboa eduki du hiruretan Industri Produkzioaren Indizearen eboluzioak: Araban %14,4 jaitsi da, Bizkaian %5,5 eta Gipuzkoan %2,1.

Industri jardueraren balantzea 2018an: Ekipoko ondasunak lider dira hazkunderan, %2,5eko igoerarekin

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen balantzean %1,3ko hazkundera izan da 2018an aurreko urtearen aldean.

Sektoreetan aipagarria da *Kokeriak eta petrolio fintzea*, zeinek erregistratu baitzuen %8,2ko hazkundera urtearen metatuan. Beste hazkunde aipagarri batzuk 2018an: *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (%5,4) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (%5,1). Alderantzizko zentzuan, *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (-%6,4), *Zura, papera eta arte grafikoak* (-%3,6) eta *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (-%1,8) izan ziren ibilerarik okerrenak erregistratu zituzten sektoreak urtean zehar.

Ondasunen helburu ekonomikoari begira, *Ekipoko ondasunek* %2,5eko hazkunde metatua eduki dute eta *Kontsumoko ondasunek* %0,7ko igoera oro har; horien artean, aipagarria da *Ez-iraunkorrek* %1,3ko igoera metatua izan zutela, baina *Iraunkorrek* %1,0 jaitsi ziren. *Energia* %0,5 hazi da eta *Bitarteko ondasunak* %0,4 2018an 2017aren aldean.

Hiru lurraldeetan zeinu ezberdineko aldakuntza metatuak izan dira 2018an: Gipuzkoan %4,5eko hazkundera izan da, baina Bizkaian %1,0ko jaitsiera eta Araban %0,2ko murrizketa.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Abendua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Abe2018 / Abe2017	A(Abe2018) / A(Abe2017)(*)	Abe2018 / Aza2018	Aza2018 / Urr2018
Indize orokorra				
Euskal AE	-6,0	1,3	-1,8	-1,5
Araba/Álava	-14,4	-0,2	-2,6	-4,3
Bizkaia	-5,5	-1,0	-3,2	-0,2
Gipuzkoa	-2,1	4,5	0,0	-1,3
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-1,3	0,7	-0,9	-2,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-5,2	-1,0	-8,7	-1,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,2	1,3	2,2	-2,5
Ekipo-ondasunak	-9,7	2,5	-2,0	-3,9
Bitarteko ondasunak	-6,2	0,4	-1,7	-1,1
Energia	-2,3	0,5	-2,2	2,7

(*) 2018ko urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62